

KANALAK

Gure aplikazioa ahalik eta jende gehien erabiltzea eta aplikazioa ezagutzea nahi dugu eta horretarako bezeroengana iritsi behar gara. Hori lortzeko, zenbait metodo erabiliko ditugu.

Hori horrela, lehenik, gaur egungo biztanleriak informazio asko jasotzen duenez sare sozial eta komunikabideetatik erabaki dugu **sare sozialetan** (instagram, facebook, twitter...) **eskegitzea** gure aplikazioaren iragarkia eta horrela jendeak horren berri izango du.



Esandako helburua lortzeko, **kartel bat** egin dugu eta hori esan bezala, sare sozialen bidez zabalduko dugu. Gure bezeroak kontuan hartuta, ikusmen urritasuna duten pertsonentzat bereziki den honetan, sare sozialetara kartela igotzen dugunean **bideo bat grabatuko** dugu **atzetik ahotsa** duena eta transmititu nahi dugun mezua helaraziko dugu. Modu horretan, ikusmen urritasun larria edo itsutasun osoa dutenek ere kartela ezagutzeko aukera bermatuko dute.

Horretaz aparte, gehiago hedatzeko eta bezeroengana iristen dela ziurtatzeko, egindako publizitate hori inprimatuta hori **jendeari banatuko** diogu **eskuz esku** haiek gure aplikazioa ezagutzeko. Kartelak, **supermekatuko ateetan** banatuko ditugu haiek bertara sartzen direnean hori ezagutzeko eta jada erabili ahal izateko. Buzoietan sartzea ez dugu aukera onena ikusten; izan ere, komunitate askok ez dute propaganda edo publizitaterik onartzen.

Modu horretan, **bi komunikazio-kanal bide** erabiliko genituzke. Alde batetik, **online**, gure kartela aurretik aipatutako sare sozialetan eskegitzea

izango litzatekeena **eta** bestetik **offline** egindako publizitate hori inprimatuta jendeari eskuz esku banatzea izango litzatekeena.

Gainera, egokia iruditu zaigu, gure aplikazioa supermerkatuetan denez (Eroski, Lidl, Mercadona eta Carrefour), denbora jakin bat pasatzen denean, esaterako, **30 minutu pasatzerakoan, supermerkatuko mikrofonoetatik edo megafoniagatik iragarkia irakurriko du bertan dauden bezeroak aplikazioa ezagutzeko ez badute jada ezagutzen edo bestela ere hori erabiltzeko edo momentuan erabiltzen hasteko. Horrela, ahoz ahoko informazioa helaraziko zaie bezeroei.**



Bide horretan ere, **ahoz ahoko kanala den marketing birala** sustatu genezake; hau da, **ahoz ahoko transmisio** bidez egiten den publizitatea. Izan ere, **gure bezeroek** aplikazioa probatuta dutela haien inguruko **jendearekin hitz egiten dutenean** erosketak egitearen inguruan baliteke aplikazio honen inguruan hitz egitea **eta haiek ere konbentzitzea eta hori instalatzea**, beraz, erabiltzen hasiko lirateke eta **bezero gehiago bereganatuko** genituzke.





EROSKETAK DENON ESKURA!



**EROSKETAK ERRAZAGO ETA AZKARRAGO
EGIN**

**MERKATUA IRAULIKO DUEN
APLIKAZIOA**

(Argazki honetan Braillez idatzitako kartela ikusi daiteke)

